

RTS28 – Betearazpen Txostena

Betearazpen-zentroei eta betearazpenen kalitateari buruzko txostena

2020ko EKITALDIA

2021ko APIRILAREN 27a

1. SARRERA

Baloreen merkatua erregulatzen duen araudiak —2017/576 Erregelamendu Delegatua (EB), Batzordearena, 2016ko ekainaren 8koa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/65/EB Zuzentaraua osatzen duena inbertsio-enpresek betearazpen-zentroen nortasunari buruzko eta betearazpenaren kalitateari buruzko informazioa urtero argitaratzeko erregulazio-arau teknikoari dagokienez (hemendik aurrera, “**Erregelamendu Delegatua**” edo “**RTS28**”)— bezeroaren babesari eta gardentasunari dagokienez eskatzen dituen helburuak betetzeko.

ESMA Balore eta Merkatuen Europako Agintaritzak ezartzen duenez, inbertsio-zerbitzuak ematen dituzten enpresek argitaratu egingo dute negoziazio-bolumenaren terminoetan beren bezeroen aginduak betearazteko erabili dituzten bost betearazpen-zentro nagusien nortasuna, eta hori finantza-tresnen kategoria bakoitzeko, baita erakundeak betearazpenen kalitateari dagokionez lortutako informazioa ere.

Argitaratu beharreko informazioa bi zatitan argitaratzen da:

1. *Betearazpen Onenari buruzko txostena*: 2017/576 Erregelamendu Delegatuaren (EB) 3. artikuluko 1. eta 2. atalei jarraikiz eskatutako informazioa.
2. *Aginduen Betearazpenaren Azterketa eta Ondorioak*: 2017/576 Erregelamendu Delegatuaren (EB) 3. artikuluko 3. atalari jarraikiz eskatutako informazioa.

Finantza-tresna jakin batzuetarako, enpresa bat betearazlea edo birtransmitzailea izan daiteke, edota bi gauzak aldi berean. ESMAren ustez, aginduak betearazi eta transmititzeko zerbitzuak ematen dituzten enpresek bi txosten bereizi eman behar dituzte zerbitzu horiei dagokienez. Garrantzitsua da txosten horiek desberdinak izatea, inbertsio-enpresek betearazpen-zentro onenen berri eman dezaten, eta, bestetik, garrantzizko aldian beren bezeroen aginduak betearazteko erakunde nagusien (bitartekariak) berri.

Betearazpen-zentroei eta betearazpenen kalitateari buruzko txostena – Betearazpen Txostena izeneko txosten hau egiterakoan finantza-tresna bakoitzaren izaera hartu da kontuan, CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE CREDITO (hemendik aurrera, “**Laboral kutxa**”) erakundeak bere bezeroen aginduak betearazteko erabilitako negoziazio-zentro nagusien gaineko laburpen bat emateko. Nolanahi ere, finantza-tresna mota batzuek edo guztiak informazioa partekatzen dutenean lotura estuei, gatazkei edo titulartasun komunari dagokienez, edota ordainketa, itzulketak eta onurei buruzko informazioari dagokionez, informazioa modu kontsolidatuan aurkeztu da.

Jarraian aurkeztuko dugun txostenean, tresna jakin batzuei buruzko informazioa xehatu da, hain zuzen ere, bere bezero txikizkari eta profesionalen aginduak betearazteko Laboral Kutxaren jomugan dauden tresnei buruzko informazioa, eta beraz, Laboral Kutxaren zerbitzu horren eraginpean ez dauden gainerako tresna guztiak txosten honetatik kanpo geratu dira.

Erregelamendu Delegatuak eskatutako informazioa jaso da dokumentu honetan. Laboral Kutxak makinaz irakurtzeko moduko formatu elektronikoko batean argitaratzen du, eta nahi duenak deskarga dezake Erakundearen webgunearen bitartez (www.laboralkutxa.com).

2. ERRENTA ALDAKORRA

2.1 AKZIOAK ETA ETFak

Negoiazio-bolumenari dagokionez, bere bezeroen aginduak betearazteko Laboral Kutxak baliatu dituen betearazpen-zentro nagusiei buruzko informazioa.

Laboral Kutxak betearazpen-estrategiak bereizten ez dituen bezero motaren arabera, bezero txikizkarietara eta bezero profesionalerako buruzko informazioa modu agregatuan erakutsiko dizuegu jarraian tresna-kategoria honetarako.

TRESNA KATEGORIA	Akzioak eta ETFak				
Adierazi aurreko urtean, batez beste, eguneko < 1 agindu betearazi zen	EZ				
Betearazpen-zentro nagusiak negoziazio-bolumenaren arabera sailkatuta (beheranzko ordena)	Kategoria honetan guztira negoziatutako bolumenaren proportzioa (%)	Kategoria honetan guztira betearazitako aginduen proportzioa (%)	Agindu pasiboen ehunekoa (%)	Agindu agresiboen ehunekoa (%)	Agindu gidatuen ehunekoa (%)
BMEX	100,0	100,0	11,87	88,13	0,0

3. ZOR-TRESNAK

Negoiazio-bolumenari dagokionez, bere bezeroen aginduak betearazteko Laboral Kutxak baliatu dituen betearazpen-zentro nagusiei buruzko informazioa.

Laboral Kutxak betearazpen-estrategiak bereizten ez dituen bezero motaren arabera, bezero txikizkarietara eta bezero profesionalerako buruzko informazioa modu agregatuan erakutsiko dizuegu jarraian tresna-kategoria honetarako.

TRESNA KATEGORIA	Betebeharrak				
Adierazi aurreko urtean, batez beste, eguneko < 1 agindu betearazi zen	BAI				
Betearazpen-zentro nagusiak negoziazio-bolumenaren arabera sailkatuta (beheranzko ordena)	Kategoria honetan guztira negoziatutako bolumenaren proportzioa (%)	Kategoria honetan guztira betearazitako aginduen proportzioa (%)	Agindu pasiboen ehunekoa (%)	Agindu agresiboen ehunekoa (%)	Agindu gidatuen ehunekoa (%)
SEND	100,0	100,0	39,77	60,23	0,0
MERF	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00

4. ERRENTA ALDAKORREKO TITULUEN GAINEKO DERIBATUAK

4.1 WARRANTak

Negoiazio-bolumenari dagokionez, bere bezeroen aginduak betearazteko Laboral Kutxak baliatu dituen betearazpen-zentro nagusiei buruzko informazioa.

Laboral Kutxak betearazpen-estrategiak bereizten ez dituen bezero motaren arabera, bezero txikizkarietara eta bezero profesionalerako buruzko informazioa modu agregatuan erakutsiko dizuegu jarraian tresna kategorian honetarako.

TRESNA KATEGORIA	Warrantak				
Adierazi aurreko urtean, batez beste, eguneko < 1 agindu betearazi zen	BAI				
Betearazpen-zentro nagusiak negoziazio-bolumenaren arabera sailkatuta (beherazko ordena)	Kategoria honetan guztira negoziatutako bolumenaren proportzioa (%)	Kategoria honetan guztira betearazitako aginduen proportzioa (%)	Agindu pasiboen ehunekoa (%)	Agindu agresiboen ehunekoa (%)	Agindu gidatuen ehunekoa (%)
BMEX	100,0	100,0	14,29	85,71	0,0

5. 2020ko EKITALDIAN AGINDUAK BETEARAZI DITUZTEN BETEARAZPEN-ZENTROETAN LORTUTAKO BETEARAZPENEN KALITATEARI DAGOKIONEZ LABORAL KUTXAK EGINDAKO AZTERKETAREN ETA LORTUTAKO ONDORIOEN LABURPENA

Jarraian, erabilitako zentro guztietan lortutako betearazpen-kalitatearen ebaluazioa jaso da, zentro horietan lortutako betearazpenaren kalitatea ebaluatzeko erabili diren betearazpen-tresna eta betearazpen-estrategiak argitzeko.

Informazio hori modu agregatuan eskaintzen da eraginpeko finantza-tresna guztietarako, aztertutako faktore eta zirkunstantziak guztientzat berdinak direla aintzat hartuta.

5.1 FAKTOREEN GARRANTZI ERLATIBOA

Betearazpen-zentro bat hautatzerakoan esku hartzen duen faktore nagusia Eragiketaren Kontraprestazio Osoa da (hemendik aurrera, "EKO"), eta beraz, arrazoizko beste aukera batzuen aldean bezeroarentzat zuzenean edo zeharka EKO hoberena sorrarazten duen betearazpen-zentroa hautatuko du Laboral Kutxak.

Xede horietarako, EKOaren barruan finantza-tresnaren prezioa eta betearazpenarekin lotutako kostuak hartzen dira, aginduaren betearazpenari lotuta egonik bezeroak bere gain hartu dituen gastu guztiak barne, hala nola betearazpen-zentroaren tasak, konpentsazio- eta likidazio-tasak eta aginduaren

betearazpenean inplikaturako hirugarrenei ordaindutako beste tasa batzuk.

Laboral Kutxak betearazpen oneneko faktore gisa kontuan hartutako faktore osagarriak honako hauek dira:

1. Likidezia
2. Betearazpen Probabilitatea
3. Aginduaren bolumena
4. Aginduaren izaera

5.2 AGINDUEN BETEARAZPENA DESBERDINA DA BEZEROEN KATEGORIZAZIOAREN ARABERA ENPRESAK BEZEROAK KATEGORIEN ARABERA BEREIZTEN DITUENEAN, ETA HORREK AGINDUEN BETEARAZPEN MODALITATEETAN IZAN DEZAKE ERAGINA. HORRI GUZTIARI BURUZKO AZALPENA

TRESNA MOTA	ERRAKENTA ALDORRA
BETEARAZPEN-ZENTROA	DESKRIBAPENA
BMEX	Laboral Kutxak ez ditu betearazpen-estrategiak bereizten bezero motaren arabera.

TRESNA MOTA	ERRENTA FINKOA
BETEARAZPEN-ZENTROA	DESKRIBAPENA
SEND	Laboral Kutxak ez ditu betearazpen-estrategiak bereizten bezero motaren arabera.

5.3 BEZERO TXIKIZKARIEN AGINDUAK BETEARAZTEAN BEREHALAKO KOSTU ETA PREZIOEN IRIZPIDEEN GAINETIK BESTE IRIZPIDE BATZUK LEHENETSI OTE DIREN AZALTZEA, ETA IRIZPIDE HORIEK BEZEROARENTZAKO ZENBATEKO OSORIK ONENA LORTZEKO ERABAKIGARRIAK IZATEAREN ARRAZOIA AZALTZEA.

Bezero txikizkariarentzat, Kontraprestazio Osoaren irizpidea baino ez da kontuan hartu.

5.4 IZAN LITEZKEEN LOTURA ESTUAK, INTERES-GATAZKAK ETA JABE BERAREN JABETZAK

TRESNA MOTA	ERRENTA ALDAKORRA
BETEARAZPEN-ZENTROA	DESKRIBAPENA
BMEX	Gaur egun, Laboral Kutxak , kide gisa, BMEX betearazpen-zentroari helarazten dizkio zuzenean merkatu nazionaleko aginduak, nahiz eta harekin inolako harremanik ez eduki.

TRESNA MOTA	ERRENTA FINKOA
BETEARAZPEN-ZENTROA	DESKRIBAPENA
SEND	Gaur egun, Laboral Kutxak , kide gisa, BMEX betearazpen-zentroari helarazten dizkio zuzenean merkatu nazionaleko aginduak, nahiz eta harekin inolako harremanik eduki ez.

5.5 EGINDAKO EDO JASOTAKO ORDAINKETEI, DESKONTUEI, MURRIZKETEI EDO ONURA EZ-MONETARIOEI BURUZKO AKORDIO ESPEZIFIKOAK

TRESNA MOTA	ERRENTA ALDAKORRA
BETEARAZPEN-ZENTROA	DESKRIBAPENA
BMEX	Berretsi dugunez, aldez aurretik aipatutako betearazpen-zentroarekin ez da inolako akordio espezifikorik ezarri deskontuei, murrizketei edo onura ez-monetarioei dagokienez

TRESNA MOTA	ERRENTA FINKOA
BETEARAZPEN-ZENTROA	DESKRIBAPENA
SEND	Berretsi dugunez, aldez aurretik aipatutako betearazpen-zentroarekin ez da inolako akordio espezifikorik ezarri deskontuei, murrizketei edo onura ez-monetarioei dagokienez

5.6 BETEARAZPEN-ZENTROEN HAUTAKETA ALDATZEA

2020ko ekitaldian lortutako emaitzen ondorioz Laboral Kutxak ez du inolako aldaketarik egin behar izan bere Betearazpen Oneneko Politikan jasotako betearazpen-zentroen hautaketan. Hortaz, ez da bidezkoa aldirian zehar betearazpen-zentroetan izandako altak eta bajak aurrekoarekin lotzea.

5.7 LABORAL KUTXAK BETEARAZPEN-KALITATEARI BURUZKO EDOZEIN DATU EDO TRESNA NOLA ERABILI DUEN AZALTZEA, 2017/575 ERREGELAMENDU DELEGATUARI (EB) JARRAIKIZ ARGITARATUTAKO DATU GUZTIAK BARNE.

BMEk IBEX 35-en argitaratutako informazioa hartu dugu aintzat merkatuetako betearazpenaren kalitatea aztertzeko. Bere negozioazio-zentroaren eta plataforma multilateral lehiakide nagusien arteko alde nagusiak konparatzen ditu bertan, prezioei eta likideziari dagokienez.

Nolanahi ere, etorkizunean kontuan hartuko dira, halaber, MiFID II inplementatzeko 2017/565/EB Erregelamendu Delegatuari jarraikiz betearazpen-zentroetan argitaratzen diren datuak.

Laboral Kutxaren ustez BME da merkatu nazionaleko balore-aginduak negoziatzeko betearazpen-zentrorik onena, merkatu-kuotaren ehuneko handia duelako eta likidezia handiagoa duelako

merkatuko urkila eta sakontasunari dagokionez, kapitalizazio handietarako eta kapitalizazio ertain eta txikietarako.

Sakontasun-faktorea txertatzen dugunean agindu bakoitzeko 25.000 euroko batez besteko bolumen baterako, BME da prezio-urkilarik onena duen negoziazio-zentroa.

BMEren agindu-liburuaren batez besteko kantitateak gainerako zentroen kantitatea bikoizten du.

5.8 LABORAL KUTXAK, 014/65/EB ZUZENTARAUAREN 65. ARTIKULUA BETEZ EZARRITAKO INFORMAZIO KONTOLIDATUKO HORNITZAILE BATEN INFORMAZIOA NOLA ERABILI DUEN AZALTZEA .

Informazio Kontsolidatuko Hornitzaile baten informaziorik ez da erabili.

Betearazpen-zentro eta finantza-bitartekari nagusien zerrenda.

ERRENTA ALDAKORRA

Betearazpen-zentroak

Bartzelonako Burtsa (XBAR, XMCE)

Madrilgo Burtsa (XBAR, XMCE)

Bilboko Burtsa (XBAR, XMCE)

Valentziako Burtsa (XBAR, XMCE)

Latibex (XLAT)

ERRENTA FINKOA

Betearazpen-zentroak

Finantza Aktiboen Bitartekarien Elkarte (AIAF), Zorra Negoziatzeko Sistema Elektronikoaren (SEND) bitartez

Bloomberg Platform Errenta Finkoko

Merkatu Elektronikoa (MERF)

LABORAL KUTXA